

Kale-borroka

Euskadiko prentsan

ETAren su-etenaren garaian, aurretik eta ondoren (1997-2000)

Ainhoa Andonegi Alonso, Iholdi Azurmendi Delgado, Mainer Osa Etxebarria
Kazetaritzako ikasleak

Euskal Herriko gatazka politikoaren baitan kale-borroka deituriko ekin-tzak gatazka horretako adierazle garrantzitsuak dira; Euskal Herriak bere nortasunaren garapen propioa lortzeko dituen arazoen parte dira eraso-saio horiek.

Ikerketa honek kale-borroka deituriko ekintzak baino gehiago, hedabideek ekintza horiei eman dieten tratamendua aztertu du, hedabideek Euskal Herriaren garapen-prozesuan nola eragiten duten ikertuz. Ikerketa gauzatze-ko joera editorial ezberdineko hiru egunkari hartu ditugu: *El Mundo*, estatu espainiar osoan argitaratzen dena eta ideologia eskuindarra duena; eta Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen diren bi egunkari: *Gara*, ezker abertzaleko ikuspegia duena; eta *El Correo Español*, ideologia espainolistaren aldekoa.

Egunkariak aztertzekeo "Lizarra-Garaziko ituna" hartu da erreferentzia-tzat, denontzat gauza jakina baita mezubideek bake-prozesuetan daukaten ardura oso garrantzitsua dela. Ituna sinatu aurreko urtea eta ondorengo ere kontuan hartu dira, denbora-tarte horretan aurrez aipaturiko hiru egunkari-ek kale-borrokari eman dioten tratamendua aldatu denentz ikusteko.

Within the political problem in the Basque Country, the different actions that take place as "kale-borroka" (street fighting) are very important indicators of such problem; these attacks are part of the problem the Basque Country has in order to be able to develop its own identity.

This research has analysed how different mass media have dealt with these different actions, rather than analysing them in themselves, analysing how the media influence in the process of development of the Basque Country.

In order to carry out our investigation, we have taken three different newspapers with different political tendencies: *El Mundo*, which is published all over Spain and with a right-wing ideology; and two newspapers that are published in the Basque Country: *Gara*, which shares the ideology of the left-wing nationalists; and *El Correo Español*, which stands on a Spanish ideology.

To analyse these newspapers, the so-called agreement "Lizarra-Garazi" has been taken as a reference. It is well-known by everybody the important role mass media play and the responsibility they have in peace processes. Both, the previous year to the agreement as well as the year after, have been taken into account. Within that period of time we have analysed whether the three previously mentioned newspapers changed the way they dealt with the subject of "kale borroka" (street fighting).

1. Sarrera¹

Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren berri bertatik bertara duen edonorentzat, oso gauza jakina da gatazka politiko eta sozial horren baitan kale-borroka adierazpen edo seinale garrantzitsua dela. Hori kontuan izanik, kale-borrokak Euskal Herrian argitaratzen diren egunkarietan nolako agerpena eta tratamendua jasotzen duen aztertu nahi izan dugu, ukaezina den arren kale-borrokaren gaiak estatuko hedabideetan ere oihartzun handia duela.

Gure ikerketa gauzatzeko, joera editorial ezberdina duten hiru egunkari aukeratu ditugu: *El Mundo*, *El Correo Español* eta *Gara* (azken egunkari hori nahiko berria denez eta sorburua *Egin* egunkaria duela jakinda, *Egin* bera eta horren eta *Gara* egunkariaren artean zubi-lana egin zuen *Euskadi Información* agerkaria ere kontuan hartu dira ikerketa-lana egiteko).

Ikerketa-lana denboran kokatzeko, ETAre su-etena hartu dugu ardatz bezala. ETAre su-etenak 1998ko irailaren 16tik 1999ko abenduaren 9ra arte iraun zuen. Beraz, aztertu nahi izan dugun gaiaren funtsa ondoko galderan dago adierazita: *Gara*, *El Correo* eta *El Mundo* komunikabideek kale-borrokari eman zioten tratamenduak ba al du loturarik Lizarra-Garaziko itunarekin? Horretarako, su-etenaren aurreko urtebeteko egunkariak, su-etenaren garaikoak eta menia apurtu ondoko urtebetekoak ere aztertu ditugu. Dena dela, beste iker-galdera eta hipotesi batzuk ere izan ditugu, ondoko lerroetan zehaztuko direnak.

2. Erreferentzia teorikoak

Bigarren atal hau osatzerakoan, hiru arazo nagusi aurkitu ditugu: lehenik eta behin, euskal gatazkaren eta hedabideen arteko lotura aztertu duten ikerlanak benetan urriak dira. Bigarren, “euskal gatazka” izenarekin ezagutzen dugunaren barnean beste hainbat gatazka aurki daitezke; beraz, euskal gatazkei buruz hitz egiten ari garela esan beharko genuke, hainbat ikerketa-objektu desberdin egon baitaitezke. Horren ondorioz ikerlan murriz horiek gai nahiko ezberdinen gainean aritu dira. Azkenik, kale-borrokaren eta hedabideen arteko erlazioa ikertzen duen lanik ez da oraindaino argitaratu. Dena den, gauza interesgarriak aurki daitezke. Horrela, Txema Ramírez De la Piscina *“El País* eta su-etena” deituriko ikerketa (2000) argitaratu zuen, non kazeta horrek guk ardatz moduan hartu dugun garaian euskal gatazkari buruz harturiko jokabidea aztertzen duen. Nahiz eta kale-borrokari buruz zuzenean ez aritu, bertan agertzen dituen ondorioak gure gai konketuarentzat ere baliagarriak direla esan dezakegu: mezubideen txukuntasunik eza salatu du, euskal nazionalismoaren karikatuzazioa eta kriminalizazioa agertuz, eta, orokorrean «(...) gatazkaren arrazoietan sakondu ordez (kontestualizazioa), kazeta honek beste testuinguru politiko-informatiboa irudikatu du, su-etenaren aurretik zegoen adinako polarizazioa birsortuz (demokratak vs bortxazaleak)» (Ramírez De la Piscina, 2000: 46). Autore beraren iritziz, mezubideek bake-prozesuetan daukaten ardura oso garrantzitsua da, eta *El País*-ek ez du gai honetan neutralki jokatu. Lizarra-Garazi adierazpena

1. Ikerlan hau UPV-EHUko Kazetaritza Sailaren Doktoretza programaren barrenean egin zen, 2001eko urtean, “Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia” ikastaroaren zati modura, Iñaki Zabaleta Urkiola irakaslearen zuzendaritzapean.

“martxan” zebilen garaian, ordura arte kale-borroka izenaz aipatzen zena *Terrorismo de Baja Intensidad* berbez definitu zela kontuan izanik, ikus dezakegu, gure gaiari buruz zuzenean hitz egin gabe, ikerlan hori oso interesgarria dela egunkari hark eraman zuen norabidea ikusteko. Beraz, kale-borrokari buruz *El País*-ek egindako lana Ramírez De la Piscina *Antiterrorismo Mediatikoa* deitzen duenaren barnean zegoela esan dezakegu dudarik gabe.

Ikerlan horretan bertan, beste azterketa batzuk aipatzen zaizkigu, Jordi Farre Buenos Aireseko Austral unibertsitateko irakasleak eginikoa (Farre, 1999), adibidez. Jordi Farre doktorearen ustez, prentsak alde batera utzi du bortizkeriaren testuingurua, eta informazioa ez du era sakonean eman. *Deia* eta *Euskadi Información* egunkariak salbuespenak izanik, arazoaren alde bakar bat besterik ez dela agertzen dio Farrek. Nahiz eta Farreren lana 1998ko EAEko hauteskundearen inguruz aritu (bere oinarria EAEko hauteskundeak eta Espainiar estatuko hedabideek izandako jokabidea da), berriz ere baliagarria suertatzen zaigu, egoera berezi horretan hedabideek euskal gatazkaren aurrean hartzen duten posizionamendua aztertzen baitu; eta, nahiz eta berriz ere, gure gaia zuzenki ez jorratu, antzeman dezakegu egunkari bakoitza zein alderdi politikoren alde dagoen, eta, azken finean, zein ikuspunturen alde egin zuen hauteskundeak eta menia elkartu ziren garai hartan.

Bestalde, lan honetan Cayetano González² hitzak ere azpimarratu nahi genituzke. José Barrionuevo barne ministro ohiak 1987an esandako hitzak³ («borroka antiterroristan ezin gara neutralak izan. Terroristen prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak ez argitaratzea ez da nahiko, Poliziak hanka sartzen duenean prentsak hori ere isilarazi behar du») bere egiten ditu eta. González-en aburuz, prentsak bere heldutasuna azaldu du, neutraltasuna alde batera uzteagatik. Neutraltasunik ezak informazio asko desagerraraz dezake —horrela gertatu da—, eta, gainera, errealitatearen errepresentazio erdipurdizkora eraman ditu kazetari asko.

Nafarroako Unibertsitateko irakaslea den Teresa Sádabak idatzitakoa (1999) ere esanguratsua da. Bertan, “bigarren trantsizio” izenaz Sadaba egungo kazetaritzak bortizkeriaren aurrean duen jarrera oldarkoragoa eta kontrakoagoari buruz jarduten da, kazetariak jarrera pertsonalagoa hartu dutela ere azpimarratuz (tituluetan, iturrietan...). Hori guztia positibotzat jotzen du Sadabak.

Aurkituriko beste ikerketa batek (Idoyaga eta Ramírez de la Piscina, 2000) lehenengoarekin zerikusi handia dauka, bai ikerlarietako bat Txema Ramírez De la Piscina delako (bestea P. Idoyaga da), bai *El País*-en gainean hitz egiten delako. *El País*-i buruz hitz egin denean esandakoa ez bada positiboa izan, *ABC*-ri buruz egindako azterketaren ondorioak askoz gogorragoak dira: egunkari hori kode deontologiko guztien aurka doa, zurrumurruek besterik ez du zabaltzen, gobernuaren posizioa indargabetu dezakeen gauzarik ez du sekula esaten eta gobernuarekin sinbiosi-egoeran egotera iristen da. Beraz, *El País*-entzat baliagarria den *Antiterrorismo Mediatikoa* definizioa *ABC*-rentzat ere baliagarritzat hartzen

2. Jaime Mayor Oreja barne ministro ohiaren komunikazio arduraduna izandakoa da Cayetano González.

3. ikus *El periódico de Catalunya*, 1987-V-08.

dute ikertzaileek. Gainera, ikerlan horretan kale-borrokari buruzko aipamen labur bat ere egiten da⁴; beraien ustez, ez *El País*-ek, ezta *ABC*-k ere ez zuten meniaren garaia behar bezala aprobetxatu, elkarrizketa zibila hobetzeko, alde guztien samina adierazteko (presoen familia, torturatuena), edo euskal arazoaren benetako zergatiak azaltzeko eta kale-borrokaren gainean azalpen errealistago bat emateko (beraiantzat kale-borroka bortizkeriaren luzapen lazgarria da, eta horren azalpen bila haren sustraietara joan beharrean, nahiago izan dute ikuskizun bihurtu, eta hura egiten dutenak gazte paranoiko gisa aurkeztu).

Txema Ramírez de La Piscina berak beste lan bat dauka (1995) gai horri buruz. Bertan, mendebaldeko kazetaritzak eta zehazki Euskal Herrikoak dauzkan arazoei buruz aritu ondoren, kode etiko bat proposatzen die euskal kazetariei. Dударik gabe, kode etiko horrek dituen 12 artikulua kazetari guztiek beteko balituzte, kale-borrokaren inguruko lan informatiboa guztiz desberdina izango litzateke. Era berean, lan horretan Emilio Alfarok⁵ eta David Barberok⁶ beren ikuspuntua ematen dute artikulua banatan. Horrela, David Barberok objektibotasuna edo alderdikeriarik gabeko informazioa alde batetik, eta dauden iritzi guztien hedapena, bestetik, hartzen ditu garrantzitsutzat. Emilio Alfarok, aldiz, botere politikotik edo ekonomikotik datorren edozein eraginen aurka tinko aritzeari ematen dio garrantzia, eta ez du uste Euskal Herriko kode deontologiko berezi bat egin behar denik. Horrez gain, bere aburuz, indarkeriari buruz aritzean, politikoki zuzena den hizkera erabiltzea ez legoke ongi, neutralitatea bilatzea ongi ez dagoen moduan. Bestela, «gerra bateko arma edo tresna bezala ikusi nahi gaituztenei arrazoa emango baikenieke».

Lehen aipatu dugun bezala, euskal gatazkari buruz hitz egitean, agian zuzenago izango litzateke euskal gatazkei buruz hitz egitea, gatazka berak bere baitan beste hainbat gatazka desberdin baitauzka, denak erlazionatuak, baina maila desberdinetan mugitzen direnak. Horrela, NOR ikerketa-taldeak⁷ *Hedabideak eta Euskal Herria* ikerlanean hedabideak eta euskal gatazka jorratzen dituela esan dezakegu. Euskal gatazka, Euskal Herriak bere nortasunaren garapen propioan dauzkan arazoak aztertuz; eta hedabideak, nortasun horren garapenean nola eragiten duten ikertuz⁸. Baina, nahiz eta lan benetan interesgarria izan, gure kasu konkretuarekin ez dauka zerikusirik handirik, eta ez digu ekarpen handiegirik egin.

4. Hirugarren ondorioan eta bertatik ateratzen den orrialde-oineko oharrean.

5. 5. orrialdean.

6. 9. orrialdean.

7. NOR iker-taldeko kideak: Josu Amezaga Albizu (EHUko irakaslea Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate sailean), Edorta Arana Arrieta (EHUko irakaslea Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate sailean), Patxi Azpillaga Goenaga (EHUko irakaslea Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate sailean), Juan Carlos Miguel de Bustos (EHUko irakaslea Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate sailean), Jose Inazio Basterretxea Polo (EHUko irakaslea Kazetaritza sailean eta UEUko kidea), Ander Iturrioz Lauzirika (EHUko irakaslea Soziologia 1 sailean eta UEUko kidea) eta Pascal Ricaud (Doktorea Informazio Zientzietan, Bordele III Unibertsitatean Maison des Sciences de l'homme-ko kolaboratzailea).

8. «Gure helburua hedabideek euskal nortasunaren garapenean nola eragiten duten aztertzea izaki, nortasun horrek alderdi edo aurpegi ezberdinak dituela eta horietako bakoitzean hedabideek modu batera edo bestera joka dezaketela argi uztea da». 15. or.

Gai hau askotan jorratu duen beste kazetari bat Antoni Batista du. Batistak bere eguneroko lanean hedabideen eta euskal gatazkaren arteko erlazioa lantzeaz gain, doktore-tesia ere gai horren gainean egin zuen. Tamalez, ez du bere tesia irakurtzeko aukerarik izan, baina bere beste lan batek, *Diario privado de la guerra vasca* izenekoak, bere hausnarketak zeintzuk diren jakiteko aukera eman digu. Bertan Batistak dio ezen kazetaritzan arazo konplexu eta ugariei erantzun sinplista eta azalekoak ematen zaizkiela, eta, euskal gatazkaren kasu konkretuan informazio guztia iturri bakar batetik (polizia eta erakundeak) lortzen dugula. Bestalde, bere iritziz, gatazka guztietan alde baten alde jartzeko joera daukate kazetariak, eta hori, nahiz eta agian etikoki edo politikoki egokia izan daitekeen, ez da kazetariak egin beharko lukeena: kazetaria gatazkaren bi muturren artean distantziakide mantendu beharko litzateke eta. Kazetariak informazioa eman behar du, eta irakurleak ikusiko du noren edo zeren alde jarri. Gure kasuan, hori ez dela gertatzen dio Batistak, eta horrexegatik ez da ulertzen beste estatuetako kazetariak ETArri buruz hitz egitean *Talde Armatu* edo *Erakunde Independentista* bezalako adierazpenak erabiltzea. ETArri buruzko informazioan manipulazioa dagoela aipatzen du, etakideak gaizkile arruntzat jotzen baitituzte, politikarekin zerikusia duen guztia alde batera utziz. Baina hori ez da gertatzen Gobernuak, Estatuak edo hedabidearen zuzendaritzak jarritako zentsuragatik bakarrik, kazetariak ere bere burua autozentsura dezake (ideologia politikoengatik edo etikarengatik), eta, lehenago aipatu dugun bezala, Batistaren ustez, hori kazetaritzaren kode deontologiko guztien aurka doa. Dena den (liburua menia-garaian argitaraturik dago, menia behin betikoa izango zela uste zenean), berak ez du uste joera hori ezin alda daitekeenez, hedabideek kamaleoi baten moduan joka baitezaketelako, eta atzo hiltzaile terrorista zena bihar bakezaletzat jo baitezakete. Hedabideek mutazio-ahalmena dutela dio. Batistaren aipamenarekin bukatzeko, berak proposatzen duena ez da kazetaria gatazkaren aurrean alde ala aurka jartzea, baizik eta gatazka baino harago jartzea, informazioa behar bezala emateko.

Aurretik gertatu zaigun era berean, Batistak ez du ia kale-borrokari buruz hitz egiten⁹, baina ziur gaude ETAREN gaineko eta orokorrean ENAM (Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua) osoaren gaineko informazioa emateko aholkuak kale-borrokari buruz emateko ere baliozkotzat jotzen dituela.

Era berean, EHUKI¹⁰ taldearen *Ajuria Eneako Ituna mezubideetan: bakerako bidea ala aztoramen iturria?* ikerlanean datu interesgarriak aurki ditzakegu. Izenburuan ikus dezakegunez, lan horrek ere ez du zuzenki gure gaia jorratzen, baina interesgarriak zaizkigun ideiak eta testuak agertzen zaizkigu bertan. Izatez, EHUKI taldearen asmoa politikariek eta prentsak azken bi hamarkadetan egin dituzten

9. 102. orrialdean, Jon Idigorasekin duen elkarrizketa batean, Jonek zera dio: «Algunos chavales son demasiado radicales. Si lo que quieren es aumentar la tensión, el hierro les quema en la mano. Yo no estoy de acuerdo con esos ataques a sedes del PNV, algún día lo podré decir, pero hoy no, a veces tenemos que callarnos cosas porque o los nuestros nos identifican con el enemigo o lo españoles se aprovechan, que en la práctica viene a ser lo mismo». Batistak, bere kazetaritza ulertzeko erarekiko leialtasunez, ez du honi buruz ezer esaten; soilik zehazten du kale-borroka garrantzia hartzen hasi zen garaian (1993an) egin zela elkarrizketa.

10. EHUKI taldea (Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza arloko Ikerlariak) José Ignacio Armentiak, José María Caminosek, Gorka Jakobe Palaziok, Txema Ramírez de la Pisciñak eta Marian Gonzalez Abrisketak osatzen dute.

gauzetatik irakaspenak ateratzea da, eta, akatsen bat egin baldin bada, akats horiek aurrera begira saihesten laguntzea. EHUKIk argi dauka kazetaritza zientzia bigunen¹¹ artean kokaturik dagoela, eta, beraz, aise manipula daitekeela, kontrol-sistemak oso ahulak baitira. Horregatik inor gutxi harrituko luke, adibidez, editoreari interesatzen ez zaion albiste bat ez agertzeak, edo bazterrean uzteak. EHUKI taldea ez da gertaera jakin bati buruz ari hori esaten duenean; beraz, kale-borroka dela-eta ere, aurrean esandakoa gerta daitekeela susma dezakegu, albisteak zokoratuz, isilaraziz, edo azalpenak saihestuz. Horrela, beraz, kazetariak eta komunikabideak errealtateko aktore bilakatzen dira, eta ez dira kontalari hutsak, errealtatearen eraiketan esku hartzen duten aktoreak baizik. Era berean, diote, Ajuria Eneako Itunaren (AEI) 14. artikuluan¹² azaltzen dena ez kazetariak eta ez Itunaren sinatzaileak ez dutela bete. Dena den, kale-borrokari buruzko aipamen konkretuak bi dira: alde batetik Juan Mari Atutxak (1993) EAEko barne sailburua izan baino lehen emandako hitzaldi bat, eta bestetik, Itunaren sinatzaileak gehiengoaren eta gutxiengoaren diskurtsoari¹³ buruz egiten duten gogoeta.

Juan Mari Atutxaren diskurtsoa guztiz adierazgarria da, berak esandakoa¹⁴ hurrengo urteetan behin eta berriz errepikatuko baita (hitzak baino gehiago, gaia azalderiaz azaltzea), Atutxak berak hedabideak bere onerako oso ongi erabiltzen jakin zuelako, baina ez horrexegatik bakarrik, hori gehiegi sinplifikatzea izango bailitzateke. EHUKIren azterlanean bertan argi geratzen den moduan, euskal gizarteak bortizkeriaren gainean izan duen iritzi-aldaketan "goitik" igorritako me-zuez gain faktore askok jokatu baitute: euskal gizartearen bilakaera ideologikoak, gatazkaren luzatzeak jendearengan ekarri duen gogaitasunak... eta abarrek.

Bigarren puntuari dagokionez, EHUKIk dio Euskal hedabideek egunero irudikatzen zutela gehiengo demokratikoari eta gutxiengo biolentoari buruzko diskurtsoa. Beraien aburuz, bitasun hori AEIren ondorioa da. Estereotipo hori, gainera, urtez urte areagotuz joan dela diote, batik bat kale-borrokaren fenomeno biziagotu zenetik. Eta euskal kazetaritza bete-betean sarturik dago polarizazio-fenomeno horren dinamikan; batzuetan fenomeno horren isla izanik, eta beste batzuetan berorren eragile modura agertuz¹⁵.

Dena den, AEIak lortu duen gauzarik nabarmenetako bat lengoaiaren sinplifikazioa izan da: itunak hizkuntza sinplifikatu du, dagoeneko ez dago (salbues-

11. Kazetaritza, Historia etab. zientzia bigunen arloan egongo lirateke, Matematika edo Fisika zientzia trinkoen atalean egongo liratekeen bezala.

12. «14. artikulua: Euskaldun guztiei, bakoitzak banaka eta kide egin daitezeneko herri, sindikaritzak, enpresa eta lanbide-elkarteetatik, elkarren arteko eramanpena, elkarrekiko begirunea eta nor bakoitzaren eta guztien askatasuna gizartearen pakezko eta onurazko elkarbizitzarako oinarritzko osagai direnez hartuta, horien alde biziki lan egin dezaten dei egiten diegu. Dei hau berezi-bereziki politika arduradunei, hezkuntzalariei, mezubideetan dihardutenei egiten diegu, eta, hori, gizartearen jokabideetan duten zalantzarik gabeko eraginagatik, gure gizartea pakeratzeko bidean lan handia egin behar dutelako».

13.152. orrialdean.

14. «(...) ez dute inolako arazorik paperontzi nahiz autobusak erretzeko, beraiek bailiran euskal presoen dispersioa ahalbideratu dutenak edota Hiesak jota hil diren ekintzaileen heriotzaren eragileak (...)».

15. Dena den, egun Bortitzak vs Bakezaleak edo Terroristak vs Demokratik bikoteak ez dira lehen bezainbeste agertzen, Lizarra-Garaziren ondoren Konstituzionalistak vs Soberanistak bikotea gailendu baita.

penak salbuespen) neurri polizialen eta politikoen arteko kontrakotasunik. Eta gure gai zehatzean ere isla dauka horrek, kale-borroka "Terrorismo de Baja Intensidad" bihurtu zenetik behintzat. Horrela, hedabide askok ez dute bereizketarik egiten ETAkideen eta sabotajeetan ekintzaile modura dabiltzaneren artean; are gehiago, kale-borroka ETAREN haztegi gisa hartzen dute gaur egun.

Amaitzeko, Txema Ramírez de la Píscinak osaturiko kode etiko deontologikoaren proposamenaren gainean hitz batzuk esan beharko genituzke. Kode hori¹⁶ beste hainbat testu kontuan izanik osatu da, hala nola UNESCOk 1970. urtean egindako Biltzar Orokorrean erabakitako 4.301 xedapena edo Espainiar Estatuko 1978. urteko konstituzioan agertzen den 20.1 artikulua, bere a, b, c eta d ataletan.

Testu horren aitzin-solasean Ramírez de la Píscinak zera dio:

Iritzi publiko libre eta informatua lortzeko adierazpen eta informazio askatasuna nahitaezko lanabesak direnez, euskal kazetarigoak ardua berezia izan behar du oinarritzko eskubide horien ihardueran, ahalmen horixek baitira ere aniztasun informatiboaren sostengu eta zutabe. Zentzu horretan, euskal kazetariak aintzat hartu behar dute euskal gizarteak bozketa guztietan erakutsi duen iritzi aniztasuna, horixe baita ere bere herritarkideei eskaini diezaioketen zerbitzurik haundienetakoa. Era berean, kode etikoaren 10. artikuluan euskal kazetariak tolerantzia eta elkarulertzea abiapuntutzat izan behar dutela bere jarduera profesionalean dio. Beraz, gutxienezko errespetua zor die Euskal Herrian dauden korronte eta pentsaera ideologiko desberdin guzteei, norberaren enpresa periodistikoaren ildo editorialetik oso urrun egon arren. Nolanahi ere, euskal kazetariak eskubide osoa du edozein kritika onestoa egiteko, oso gordina bada ere. Haatik, horrek ezin du justifikatu ezein korronte ideologikoaren kriminalizazio politikoa.

3. Iker-galderak eta hipotesiak

Gure ikerlan honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko egunkarietan kale-borrokak izan duen arreta periodistikoa aztertzen dugu. Hiru epe hartu dira kontuan: ETAREN su-eten aurreko garaia, su-etena, eta su-eten ondokoa.

3.1. Iker-galderak

1. Zenbat kale-borrokako ekintza gertatzen dira aztertutako hiru garaietan, hau da, ETAREN su-etenaren aurretik, su-etenaren garaian, eta ondoren?
2. Zenbat ekintza dira burutuak eta zenbat zapuztuak?
3. Zer-nolako tamaina daukate albisteek egunkari bakoitzean?
4. Zeintzuk dira erasotuak? Zenbat dira?
5. Zeintzuk dira erasotzaileak?
6. Non gertatzen dira kale-borrokako ekintzak?
7. Noiz gertatzen dira kale-borrokako ekintzak sarriago?

16. Kode hau hainbat tokitan argitaratu da, esaterako lehen ikusitako ikerlanaren, (EHUKI, 1977) bigarren eranskin baten moduan, 169. orrialdetik aurrera.

3.2. Hipotesiak

Ikerketaren diseinua egitean, errealitate soziopolitikoaren ezagutzatik abiatuz, hurrengo hipotesiak egin genituen.

1. Kale-borrokako ekintzen ondorioz egunkarietan agertzen diren erasotu gehienak PP alderdikoak izan daitezke.
2. Kale-borrokako ekintza gehienak udan gerta daitezke.
3. Herriko jaiak direnean, kale-borrokako ekintzak ugaritu egiten dira.
4. Ingurune fisikoari dagokionez, herrietan hiriburuetan baino gehiago gertatzen dira kale-borrokako ekintzak.

4. Metodologia

Azterketa hau egiteko, eduki-analisiaren metodologia erabiliko dugu.

4.1. Unibertsoaren definizioa

Ikerketa honen unibertsoa hiru urte konkretutan zentratu dugu, hau da, 1997-2000 urte-tartean; Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatu Espainiarrean argitaratzen diren egunkarietako sail guztiak hartu dira; egunkaria bere osotasunean aztertuko da.

4.2. Laginaren definizioa

Egunkarien lagina: aukera arrazoitua izan da. Gure helburua egunkarien arteko desberdintasuna aztertzea denez, ideologia eta kokapen geografikoa kontuan izanik aukeratu ditugu egunkariak.

Hortaz, Estatu osoan argitaratzen den eta ideologia euskuindarra daukan egunkari bat hartu da: *El Mundo*. Horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen diren bi egunkari: ezker abertzaleko egunkaria, *Gara*, eta ideologia espainolistaren aldekoa, *El Correo Español*.

Data-lagina: lehenik eta behin aipatu behar da kale-borrokak lotura zuzena daukala Euskal Herriko egoera politikoarekin; beraz, hori guztia kontuan izanik, hiru garai desberdinetan zentratu dugu gure ikerketa:

- a) Su-etenaren aurretik: 1997/9/28-1998/9/5 → ETAren su-etenaren urtebete aurretik.
- b) Su-etenaren garaian: 1998/9/28 - 1999/9/5 → ETAren su-etenak iraun artean.
- c) Su-etenaren ondoren: 1999/9/28 - 2000/9/4 → ETAren su-etena baino urtebete beranduago.

Bestalde, *aste konposatua* izeneko metodoa erabili dugu, eta garai bakoitzean hiru aste konposatu hartu ditugu lagin modura, hasiera-eguna era aleatorioan aukeratuz.

Sail-lagina: aukeratutako egunkariak bere osotasunean azterkuko ditugu.

4.3. Analisi- eta neurketa-unitatea

Azterketa honetan erabiliko dugun analisi-unitatea albistearen tamaina izango da; beraz, neurketa-unitatea albiste horrek betetzen duen espazioa izango da, beti ere erreferentzia egunkariko orrialdea izanik. Horrela, orrialde osoa betetzen duen albisteak 1 tamaina izango du. Orrialdearen hiru laurden hartzen baditu, 0,75; 0,1 balio txikiena izango delarik. Tamainaren kodetzea hauxe da: 1, 0'75, 0'66, 0'5, 0'33, 0'25 eta 0'1. Beraz, neurketa-unitatea *ratioa* izango da.

4.4. Katetoria-sistemak

4.4.1. Subjektu protagonistak:

1. Erasotzaileak:

- Gizabanakoak → erasotzailea pertsona bat denean.
- Taldeak → erasotzailea talde bat denean.

2. Erasotzak:

- Gizabanakoak → erasotua pertsona bat denean: zinegotzia (PP/PSOE/beste), kazetaria, ertzaina, polizia.
- Tokia → erasotua toki bat denean: garraioak, banketxeak, egoitza politikoa (PP/PSOE/beste).

4.4.2. Ekintza

3. Ekintzaren kokalekua: zein herrialdetan, hiriburutan eta herritan gertatu den.
4. Noiz gertatu den: egunez edo gauez gertatu den.
5. Gaia: ekintza burutua izan den edo ez den erabat burutu; hau da, zapuztua izan den.

5. Emaizak

5.1. Arreta

Lehenbizi ezagutu nahi dugu nolako arreta eskaini zion egunkari bakoitzak kale-borrokari hiru garaietan, aztergai modura albiste-kopurua erabiliz. Jakina, emaitza horiek interpretatzeko, gogoan izan behar dugu errealitatean gertatutako ekintza-kopurua ere desberdina izan zitekeela —eta izan zela— hiru garaietan eta, ondorioz, horien gaineko arreta informatiboa ere desberdina izango zela. Hala ere, adibidez, errealitatean ekintzak urrituz gero, arreta informatiboa ere hiru egunkarietan urrituko zen, baldin eta hirurek kale-borrokari antzeko balio periodistikoa ematen bazioten behintzat. Halaber, emaitza bat adierazgarria izan liteke, baldin eta bi egunkaritan informazioen kopurua beherantza badoa eta bakar batean gora.

Hurrengo taulan (1. taula) jakin nahi dugu zer albiste-kopuru eskaini zion egunkari bakoitzak kale-borrokari garai bakoitzean —eta hiru garaiak batuta—. Emaizak nahiko garbiak dira:

- Su-etenaren aurreko garaian, hiru egunkariak kale-borrokari buruzko informazio-kopuru berdintsua eman zuten (%36-30 artean).
- Su-etenaren garaian, *Gara*-k gutxitu egin zuen kale-borrokaren gaineko informazio-kopurua (%34tik %25era).
- *El Mundo*-k, berriz, su-etenaren aurretik eta garaian portzentaje berbera mantendu zuen (%36), eta ondoren gutxitu egin zuen (%28ra jaitsiz).
- *El Correo Español* egunkariaren kasua da aipagarria. Su-etenaren aurretik, kale-borrokaren informazio-kopurua beste egunkarien parekoa zuen (%30). Su-etenaren garaian nabarmen ugartu zuen kopuru hori (%40ra), eta areago oraindik su-etenaren ondoren (%44).

Guztira izeneko zutabeari begiratuz, ikusten dugu *El Correo Español* izan dela kale-borrokari informazio-kopuru handiena eskaini diona; ondoren *El Mundo*, eta azkenik *Gara-Egin*.

1. taula: kale-borrokaren informazioaren banaketa hiru egunkarien artean

	Su-etenaren aurretik	Su-etenaren garaian	Su-etenaren ondoren	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%34	%25	%28	%29
<i>El Mundo</i>	%36	%36	%28	%34
<i>El Correo Español</i>	%30	%40	%44	%37
Guztira	%100	%100	%100	%100

N = 142.

Hurrengo taulan (2. taula) berriz, hiru egunkariak kale-borrokari emandako espazioa aztertzen da, bai garai bakoitzean, eta bai guztira. Emaitzak ezin adierazgarriagoak dira. *Gara*-k eta *El Mundo*-k oso antzeko espazioa eman diote kale-borrokari hiru garaietan. *El Correo Español* egunkariak, aldiz, beste biak batera baino espazio gehiago (%56 guztira). Hiru garaietan ere joera bera mantendu du.

Kale-borrokari buruz argitaratu diren albiste gehienek orrialde osoa betetzen dute *El Correo Español* egunkarian. *El Mundo* eta *Gara* egunkarietan, ordea, orrialde osoko albisterik apenas aurkitu dugu. Egunkari bi horietan, albiste gehienak orrialdearen hiru laurdenekoak edo txikiagoak ziren.

2. taula: kale-borrokari buruzko informazio guztiaren banaketa hiru egunkarien artean, orrialde-espazioen arabera

	Su-etenaren aurretik	Su-etenaren garaian	Su-etenaren ondoren	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%8	%9	%3	%21
<i>E Mundo</i>	%9	%9	%5	%23
<i>El Correo Español</i>	%22	%20	%14	%56
Guztira	%40	%38	%23	%100

N = 88,67 orrialde

5.2. Erasotzaileak eta erasotuak

5.2.1. Erasotzailea

3. taula: erasotzailea

	Pertsona	Taldea	Erasotzaile ez adierazia	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%3	%58	%38	%100
<i>El Mundo</i>	%3	%78	%19	%100
<i>El Correo Español</i>	%1	%60	%39	%100
Guztira	%2	%64	%33	%100

N = 213

Erasotzailea nor izan den aztertzean, gehienetan taldea izan dela konturatu gara. Aspektu horretan, *El Mundo* egunkaria izan da erasotzailea gehien identifikatu duena, eta kasuen %78n talde ezezagun gisa agertu da erasotzailea. *Gara* eta *El Correo Español* egunkariak oso parekatuta azaldu zaizkigu. Pertsona bakarrak oso gutxitan izan dira erasotzaileak. Horretaz gain, esan beharra dago, albiste askotan ez zela erasotzailea aipatzen. Horrelako kasuak batez ere *Gara* eta *El Correo Español* egunkarietan aurkitu ditugu.

5.2.2. Erasotuaren izaera: pertsonak eta tokiak

4. taula: erasotuaren izaera: pertsonak eta tokiak

	Pertsona	Tokia	Erasoturik ez	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%25	%63	%2	%100
<i>El Mundo</i>	%29	%52	%19	%100
<i>El Correo Español</i>	%9	%53	%38	%100
Guztira	%19	%55	%25	%100

N = 213

Erasotuari dagokionez, hiru talde bereizi ditugu: alde batetik, erasotua pertsona edo tokia izan den eduki dugu kontuan. Horretaz gain, erasotua tokia izan denean, toki hori zehazten saiatu gara bigarren multzo batean, eta azkenik, arasotuen artean gehien agertuko zirela uste genuen alderdi politikoak definitu ditugu; hau da, PP eta PSOE alderdiak. Hori guztia kontuan izanik, esan daiteke erasotua gehienetan tokia izan dela. Albisteen %55ean, tokiak izan dira erasotuak. Aipatu beharra dago baita ere, kasuen %25ean erasotua nor izan den ez dela aipatzen. Gara egunkarian, esate baterako, tokia erasotu duten albisteeek %63ko betedura izan dute. *El Correo Español* egunkarian %53 (pertsonak %9), eta *El Mundo*-n %52. Arestian aipatu bezala, *El Correo Español* egunkarian, erasotua pertsona izan duten oso albiste gutxi aurkitu ditugu, %9 soilik. Hala ere, aipatu beharra dago, %38an erasotua ez dela identifikatu.

5.2.3. Erasotuaren izaera: lanbideak eta beste

5. taula: erasotuaren izaera: lanbideak eta beste

	Banketxea	Alderdi egoitza	Ertzaina	Garraioa	Kazetaria	Polizia	Zinegotzia	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%25	%8	%11	%25	%6	%8	%17	%100
<i>El Mundo</i>	%17	%36	%14	%14	%0	%7	%12	%100
<i>El Correo Español</i>	%33	%15	%7	%26	%4	%7	%7	%100
Guztira	%24	%21	%11	%21	%3	%8	%12	%100

N = 105

Bigarren atalean, erasotutako tokiak zeintzuk izan diren zehazten saiatu gara. Gure ikerlana egin ostean, konturatu gara banketxeak izan direla gehienetan kale-borrokaren ondorioz erasotutako tokiak, hain zuzen ere, albisteen %24 betetzen dute. Hala ere, oso gertutik jarraitzen diote garraioek eta alderdi politikoaren egoitzek, bakoitzak albiste guztien %21 betetzen dute eta.

Halaber, interesgarria izan daiteke jakitea hiru garai horietan zer-nolako arreta informatiboa izan zuten erasotutako lanbideek; hau da, ea zenbat ekintza izan ziren —edo informatu ziren— su-etenaren aurretik, bitartean eta ondoren, polizien eta ertzainen aurka, beste lanbide batzuen artean.

Kalkuluak eginda, hauek dira emaitzak:

- Banketxe, polizia, kazetari, zinegotzi eta alderdi politikoaren aurkako ekintzen eta informazioen kopuruak nahiko antzekoak izan ziren hiru garaietan, \pm %5eko tartearen barrenean.
- Ertzaintzaren kasuan, berriz, su-etenaren aurretik, ertzainen aurkako ekintzen informazioa %10 zen, su-etenaren garaian %0, eta ondoren, berriz hasi zen (%2).

6. taula: ertzainei eskainitako arreta hiru garaietan

	Su-etenaren aurretik	Su-etenaren garaian	Su-etenaren ondoren	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%11	%0	%0	%11
<i>El Mundo</i>	%12	%0	%2	%14
<i>El Correo Español</i>	%4	%0	%4	%7
Guztira	%10	%0	%2	%11

N = 13 albiste

5.2.4. Alderdi politiko erasotutak

7. taula: alderdi politiko erasotutak

	PP	PSOE	Beste	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%42	%50	%8	%100
<i>El Mundo</i>	%15	%15	%70	%100
<i>El Correo Español</i>	%50	%17	%33	%100
Guztira	%29	%26	%45	%100

N = 21

Azkenik, hirugarren multzoan, alderdi politiko erasotutak zeintzuk izan diren definitu dugu. PP eta PSOE alderdiak hartu ditugu erreferentziazat, eta biak oso antzera erasotu dituzte. PP %52 eta PSOE %48.

PP eta PSOE bakarrik aztertu dira, edo behintzat, datu-basean guztira agertu diren alderdiak bi horiek baino ez dira.

5.3. Kale-borrokako ekintzen ezaugarriei buruz

5.3.1. Gaia

8. taula: ekintza burutuak eta ez-burutuak

	Ekintza burutua	Ekintza ez-burutua	Kale borrokaz	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	46	5	9	60
<i>El Mundo</i>	36	2	20	58
<i>El Correo Español</i>	59	2	34	95
Guztira	141	9	63	213

N = 213

Gaia bera aztertzean, hiru multzo bereizi ditugu. Ekintza burutua, ekintza ez-burutua, eta kale-borrokaz mintzo diren albisteak. Egunkari guztietan ekintza burutuak izan dira gehien agertu direnak. Ekintza ez-burutuen presentzia oso txikia izan da. Kale-borrokaz mintzo diren albisteek, ordea, oso presentzia desberdina izan dute. *El Correo Español* egunkarian, %34ko presentzia izan dute, *El Mundo*-n %20koa eta *Gara* egunkarian %9 bakarrik. Diferentzia handia eta aipagarria da.

5.3.2. Kale-borrokako ekintzen kokapen geografiko eta urbanoa

Azpiatal honetan ezagutu nahi dugu egunkariak zer herrialdetako kale-borroka ekintzei buruz informatu duten. Izan ere, ez baita gauza bera, “kale-borroka ekintzak non izan diren” eta “nongo kale-borroka ekintzei buruz” informatu den.

9. taula: kale-borrokako ekintzen kokapen geografikoa

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ipar Euskal Herria	Nafarroa	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%23	%33	%30	%0%	%14%	%100
<i>El Mundo</i>	%6	%41	%43	%2%	%8	%100
<i>El Correo Español</i>	%7	%31	%34	%1	%25	%100
Guztira	%12	%35	%35	%1	%17	%100

N = 175

Kale-borroka non izan den ere aztertu dugu. Kasu honetan, Euskal Herria probintziak banatu dugu. Hego Euskal Herriko probintziak bereizi egin ditugu, baina Ipar Euskal Herria dena batera aztertu dugu. Gauzak horrela, Bizkaia eta Guipuzkoa izan dira kale-borrokako kasu gehienak jasan dituztenak. Bi probintzia horien artean, kale-borrokako kasuen %70 betetzen dute, eta gainerako probintzietan oso ekintza gutxi aurkitu ditugu. Ipar Euskal Herrian, esate baterako, guk aukeratutako garaian, ez da ia kale-borroka ekintzarik egon.

10. taula: kale-borrokaren ekintzen kokapen urbanoa

	Herria	Hiria	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%60	%40	%100
<i>El Mundo</i>	%69	%31	%100
<i>El Correo Español</i>	%65	%5	%100
Guztira	%65	%35	%100

N = 175

Bigarren taula batean, kale-borrokako ekintzak herrian edo hiriburuetan izan diren aztertu dugu. Kasu honetan, probintzietako herrietan gertatu diren kale-borrokako ekintzak, hiriburuetakoen bikoitza izan dira. Hau da, herrietan kokatu dira kale-borrokako ekintza guztien %65, eta hiriburuetan %35.

5.3.3. Kale-borrokaren ekintzen tenorea: gauez edo egunez

11. taula: kale-borrokaren ekintzen tenorea –gauez edo egunez–

	Egunez	Gauez	Guztira
<i>Gara-Egin</i>	%35	%65	%100
<i>El Mundo</i>	%9	%91	%100
<i>El Correo Español</i>	%25	%75	%100
Guztira	%22	%78	%100

N = 136

Azkenik, kale-borrokako kasuak noiz gertatzen diren aztertu dugu. Taulari begiratu gero, berehala ikusten da kale-borrokako ekintza gehienak gauez gertatzen direla. Kasu guztien %78 gauez, eta %22 egunez.

6. Ondorioak

6.1. Arretaz

El Correo Español, *El Mundo* eta *Egin-Gara-Euskadi Información* egunkarietan kale-borrokari buruzko albisteen presentzia aztertzean, egunkari batetik bestera ezberdintasun nabarmenak daude. Kopuruari dagokionez, *El Correo Español*-ek argitaratu ditu artikulu gehien. Gainera, kale-borrokari buruzko albisteen presentziak gora egin zuen *El Correo Español*-en ETaren su-etenak iraun zuen denbora-tartean (*Egin*-en behera egin zuen nabarmen, eta *El Mundo*-n mantendu egin den).

Beraz, argi ikus daiteke Espainiako gobernuko ideologiarekiko nolabaiteko abegikortasuna erakusten duela *El Correo Español*-ek. Izan ere, Madrilgo gobernutik Alderdi Popularreko kideek hasiera-hasieratik esan zuten ETaren su-etena tranpa baino ez zela (“tregua trampa”). Badirudi *El Correo Español*-eko zuzendaritzakoek ere iritzi hori zabaldu nahi izan zutelaren irakurleen artean, eta, hori zela eta, meniak iraun zuen bitartean kale-borrokari buruz argitaratutako albisteak ere ugaritu egin ziren. Horrekin lotuta, aipatu behar da kale-borrokako ekintzarik egon gabe, kale-borrokaren gaiari buruz artikulu gehien idatzi dituen egunkaria ere *El Correo Español* izan dela.

Bestalde, kale-borrokari buruz argitaratutako albisteen tamaina kontuan hartzen bada, guztira kale-borrokari eman zaion espazio osoaren erdia baino gehiago *El Correo Español*-ek berak argitaratu du. Zehatz esateko, espazio osoaren %55, 83. Oso datu esanguratsua.

Horretaz gain, *Gara*-n eta *El Mundo*-n kale-borrokari buruzko orri osoko artikulurik aurkitzea oso zaila den bitartean, *El Correo Español*-en kale-borrokaren inguruan diharduten artikuluen %19,04k orrialde osoko arreta informatiboa dute. *El Mundo*-n kale-borrokari buruzko artikuluen %1,12k baino ez du orrialde osoko arreta.

6.2. Erasotzaileak eta eraso jasandakoak

Erasotzaileei buruz, argi dago kale-borrokako ekintzarik gehienak taldean egiten direla. Egunkariak ere horixe jasotzen dute. Kale-borrokari buruz argitaratu diren notizien %64an taldeari leporatzen zaio ekintzen egiletza. Bestalde, albiste askok egiletzaren gaia airean uzten dute, batere argitu gabe. Zehatz esateko, kale-borrokari buruz argitaratutako albisteen herenak ez du argitzen ekintza horien egiletza. Ezaugarri hori aztertutako hiru egunkarietan ikusi dugu, baina *Gara*-n eta *El Correo Español*-en baino portzentaje txikiagoan *El Mundo*-n.

Erasoa jasaten dutenak, berriz, tokiak izaten dira gehienetan: alderdi politikoe-tako egoitzak, banketxeak, garraibideak nahiz bestelakoak. Urrienak, berriz, per-sona konkretuei egindako erasoak dira. Azken multzo horri dagokionez, eraso nozitu dutenak zinegotziak direnean, Alderdi Popularreko eta Alderdi Sozialistako zinegotziengan zuzendutakoak dira beti eraso horiek. Dena dela, *El Mundo*-k PPko eta PSOEko zinegotzienganako erasoak portzentaje bertsuan jaso ditu, baina *El Correo Español*-ek PPkoek jasandako kale-borrokako ekintzekiko ardua handiagoa erakutsi du. Alderdi Popularrekoek jasandakoak dira *El Correo Español*-ek argitaratu dituen zinegotziei zuzendutako erasoen %75.

6.3. Kale-borrokako ekintzen ezaugarriak

Kale-borrokako ekintza gehienak Bizkaian eta Gipuzkoan izan dira. Ekintzen %35 jaso du probintzia horietako bakoitzak, eta Euskal Herriko gainerako probintziak (Araba, Nafarroa eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) ez dira Bizkaiak eta Gipuzkoak batutako portzentajearen erdira ere iristen. Aipagarria da, era berean, Nafarroan Araban baino kale-borrokako ekintza gehiago izan direla (%5 gehiago), eta Euskal Herrian gertatu diren ehun kale-borrokako erasotatik bakarra soilik gertatu dela Ipar Euskal Herrian. Bestalde, ekintzarik gehienak herrietan izan dira (%65), eta ez hiriburuetan. Horrez gain, gauez gertatu dira kale-borroka ekintzarik gehienak, %78.

6.4. Diskurtsoaren ezaugarriak

Diskurtsoaren ezaugarriari dagokionez, *El Mundo* egunkariak gutxitan jotzen du adjektiboetara kale-borrokako ekintzak egiten dituztenei buruz hitz egitean. Dena dela, adjektibo gutxi batzuk behin baino gehiagotan errepikatuta daudela ikus daiteke. Adibidez, *radical*, *violentos* edo *terroristas*.

El Correo Español-en kasuan, diskurtsoak ezaugarri argi eta nabarmenak dauzka. Kale-borrokaren gainean emandako irudia guztiz negatiboa da. Argazkiei dagokionez, beti ateratzen dira irudirik gordinenak: autobus edo kotxe erreak, jende beldurtu eta etsia... Argazki horiek, gainera, ekintzarik egon ez den egunetan ere agertzen dira, politikari batek kale-borrokari buruzko adierazpenak egin di-tuenean edo Ertzaintzari buruzko datuak edo informazioa eman denean batez ere. Era berean, Nafarroako Foru Erkidegoan edo Ipar Euskal Herrian horrelako ekint-zak gertatu direnean, argazkiak ez dira izan horren ikusgarriak, garrantzi gutxiago eman zaie, agian *El Correo Español*-ek duen bokazio autonomistagatik.

Bestalde, ekintza eta ekintzaile horiek definitzeko orduan, testuak adjektiboz jositik doaz: *desconocidos*, *encapuchados*, *radicales* eta *jóvenes* besteen gaitetik geratzen dira kopuruari dagokionez. Beraz, ekintzaileen kasuan adjektibo positibo bakarra *jóvenes* da, nahiz eta erabilitako testuinguruan konnotazio negatiboa izan, gazteak bortizkeriarekin eta sarraskiekin erlazionatzen baititu. Eta ekintzak berak, besteak beste *bandalismo* eta *terror* adjektiboekin erlazionatzen ditu, nahiz eta gehienetan *violencia callejera* erabili.

Egin-en, berriz, artikuluetako izenburuetan askotan ez da aipatzen kale-borrokaren autoretza. Bestalde, kale-borrokako ekintzaileei buruz hitz egitean adiera askoz ere suabeagoak erabiltzen dira; adibidez, *desconocidos*.

Bibliografia

- Alsina Rodrigo, M. (1991): *Los medios de comunicación ante el terrorismo*, Icaria arg., Bartzelona.
- Atutxa, J. M. (1993): *Gobierno, Parlamento y medios de comunicación en la lucha contra el terrorismo*, Complutense-ko Udako ikastaroak, Almería.
- Batista, A. (1999): *Diario privado de la guerra vasca*, Plaza&Janés, Bartzelona.
- Borrat, H. (1989): *El periódico, actor político*, Gustavo Gili, Bartzelona.
- Collon, M. (1995): *Ojo con los media*, Iru, Hondarribia.
- EHUKI taldea (1997): *Ajuria Eneako Ituna mezubideetan: Bakerako bidea aztoramen iturria?*, Arabera-G.L. arg., Gasteiz.
- Farre, J. (1999): "Esfera pública, comunicación política y prensa diaria. La escenificación política de las elecciones al Parlamento", *Zer* 7.
- NOR ikerketa taldea (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*, UEU, Bilbo.
- Ramírez de la Piscina, Tx. (1995): *Mezubideak eta gatazka politikoa Euskal Herrian: proposamen bat*, Elkarri, TOLOSA.
- , (2000): "El País eta su-etena", *Jakin* 119.
- Ramírez de la Piscina, Tx. eta Idoyaga, P. (2000): "Política informativa de El País y ABC ante la nueva situación política del País Vasco", *Zer* 10.
- Sadaba, T. (1999): "Comunicación y conflicto terrorista: la 'segunda transición' de los medios", Rodríguez R./Sadaba T. (Arg.) in *Periodistas ante conflictos. El papel de los medios de comunicación en situación de crisis*, Eunsa, Iruñea.
- Soria, C. (1987): *Prensa, paz violencia y terrorismo*, Eunsa arg., Iruñea.
- Zabaleta Urkiola, I. (1997): *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*, UEU, Bilbo.